

EAEkoIRAKASLEAK

EPE 2020. BIGARREN HEZKUNTZAKO ETA LANBIDE HEZIKETA

- Praktikaldia 2023-2024 ikasturtean gauzatu behar duten hautagaientzat:
- Praktiketako funtzionarioak izendatzen dituen [agindua](#).
 - Praktikaldia arautzen duen [ebazpena](#).

EPE 2022. EGONKORTZEKO LEHIAKETA-OPOSIZIOA ETA OHIKO LEHIAKETA-OPOSIZIOA

Egonkortze prozesuaren AHOZKO faseko eguna eta ordua espezialitate batzuetan argitaratu dute. Informazio hori Hezigunea atarian ikusgai dago:
Hautaketa-prozesuaren jarraipena > Norberaren kidegoa eta espezialitatea aukeratu > Epaimahaiak > Egokitutako tribunala aukeratu > Iragarki-taula.

ADI!! Kontsultatu epaimahaien iragarki-taulak, maiztasun handiz!!

* Ohiko eta biguneko prozesuen **Ratioak eskuragarri** ondorengo [loturan](#).

EPE 2022. EGONKORTZEKO SALBUESPENEZKO PROZESUA (merezimendu-lehiaketa)

Azaroaren 9an, EHAA argitaratu da hautatutako ordezkoen eta karrerako funtzionario izendatzeko eskubideak galdu dituzten hautatuen bigarren [zerrenda osagarria](#). Agindu horretan hautatutako ordezkoek, azaroaren 10etik 20ra deialdian jasotako dokumentazioak aurkeztu beharko dituzte Hezigunea atarian, Tramitagune bidez.

Azaroaren 20ko asteen, EHAA argitaratuko da hautatuak izan diren pertsona guztiak karrerako funtzionario izendatzeko agindua.

Azaroaren 27ko asteen, lanpostuaz jabetzeari ekingo zaio. Datozen egunetan, Hezkuntza Sailak data zehatzen eta behar diren jarraibideen berri emango duela adierazi du [web orrian](#) (*Hautatuak* atalean).

Jabetza: balizko data abenduaren 1a. Aurretik dokumentu bat argitaratuko dute egoera ezberdinak aurreikusiz, eta kasu horietan jarraitu beharreko prozedura azalduz.

LEKUALDATZE-LEHIAKETA

Administrazioak adierazitako aurreikuspena: deialdia abenduaren 1ean argitaratzea eta prozesua burutzeko epea abenduaren 4tik 21era izatea.

Datak zehatzak izatean, STEILASek urtero bezala LAL-ri buruzko hitzaldi irekiak antolatuko ditu. Laster helaraziko dizkizuegu hitzaldiei buruzko zehaztapenak.

EPELARIEN AZTERKETA EGUNAK ORDEZKATU!!

www.steilas.eus